



GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

JOHN EMSLEY

eta gustura irakurtzen den kimika



John Emsley kimikaria eta dibulgazioko idazlea da, eta bi izaera horiek trebetasun handiz uztartzen ditu. Bere web-orrian egiten duen aurkezpenean, hasieratik uzten du argi: “I’m an author. I’m a chemist” esaten du (“Idazlea naiz. Kimikaria naiz”). Eta, dagoeneko, bi esparruak uztartuta, 15 liburu argitaratu ditu. Kritika oso onak izan ditu, neurri batean idazteko estiloari esker, eta, beste neurri batean, ibilbidearen hasieratik ekin diolako gertuko kimikari buruzko testuak idazteari. Eta gertuko kimika ez den kasuetan, interes handiko kimikari buruzkoak.

Molecules of Murder oso adibide adierazgarria da. Pozoinei buruzko liburua da. Haren hitzetan: “Liburu hau produktu kimiko oso arriskutsu batzuei buruzkoa da. Zoritxarrez, batzuek uste dute produktu kimiko guztiak direla arriskutsuak”. Emsley saiatzen da gauzak dagokien lekuan uzten. Pozoi ezagun batzuen historia eta eragina azaltzen ditu, hilketa ospetsu batzuk hari moduan hartuta. Esate baterako, errizinoari buruz hitz egiten du Georgi Markov idazle eta kazetari bulgariarraren kasuari lotuta; Markovek Bulgaria komunistatik ihes egin zuen, eta urte batzuk geroago Errusiako KGBk pozoitu egin zuen errizinoarekin. Diamorfinaz hitz egi-

teko, Harold Shipman hiltzailearen kasua erabiltzen du Emsleyk; Shipman Ingalaterrako mediku bat zen, eta susmatzen dute 200 pertsona baino gehiago hil zituela diamorfina erabiltzaile. Liburuan aipatzen den beste kasu bat da Alexander Litvinenko espioi errusiarraren hilketa, polonio-210 isotopoa erabiltzaile gauzatu zena. Duela urte gutxiko albisteak izan zen mundu osoko komunikabideetan.

John Emsleyren beste liburu aipagarri bat *Vanity, Vitality, and Virility* da. Gustura erosten diren produktuen kimikari buruzko liburua da. Izenburuarekin lotuta, besteak beste, ezpain-barraren historia kontatzen du (*Vanity*), elikagaien industriari erabiltzen diren gantzak aztertzen ditu (*Vitality*) eta Viagraren historia azaltzen du (*Virility*). Eta horiez guztiez gainera, erosten ditugun beste substantzia askori buruz hitz egiten du: desinfektatzaileak, depresioaren kontrako botikak, txikleak eta barruko arropa erotikoko jangarriak dituzten “ezkutuko” polimeroak, asfaltoak eta beste produktu asko. Kontuan hartzeko modukoa da John Emsleyren lana. Kimika denontzat, eta ondo idatzita. ●

i

Molecules of Murder: Criminal Molecules and Classic Murders

John Emsley

Royal Society of Chemistry

242 x 160 mm

ISBN: 978-0854049653

Vanity, Vitality, and Virility

John Emsley

Oxford University Press

234 x 165 mm

ISBN: 978-0192805096